

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

Ebazpena: R9/2017
Espedientea: 13/2012

Bilbon, 2017ko ekainaren 21ean,

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituenak, honako erabaki hau hartzen du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean (ZAEA) aurkeztutako eskumen-gatazkaren inguruan, 1. ERAKUNDEA (IFZ -----) erakundearen helbide fiskalari dagokionez; gatazka hori Arbitraje Batzordearen aurrean izapidetzen ari da, 13/2012 espediente-zenbakiarekin, Javier Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela.

I. AURREKARIAK

1.- 2012ko martxoaren 20an, Arbitraje Batzorde honetako erregistroan hurrengo martxoaren 22an sartuta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Koordinazio eta Laguntza Teknikorako zuzendariordeak, foru-ogasun horretako zuzendari nagusiak orduan hartutako erabakia betez, eskumen-gatazka aurkeztu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aurrean, 1. ERAKUNDEA (aurrerantzean, 1. ERAKUNDEA) erakundearen (IFZ: -----) helbide fiskalari zegokionez sortutako desadostasuna ebaztearren. Hori horrela, Arbitraje Batzordeak haren helbide fiskalaren zuzenketa egokitzat jo zezan eskatu zuen, 2000tik Bizkaian ez dagoela iritzita.

2.- BFaren planteamenduaren idatziarekin batera erakundearen helbide fiskala zuzentzeko hasitako administrazio-espedientea ere igorri zuen. Espediente hori

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

aztertuta, gatazka ebazteko garrantzitsuak diren honako egitate eta administrazio-jarduera hauek sortu dira:

a) 1. ERAKUNDEA sozietatea Bizkaian eratu zen 1998ko ekainaren 15eko eskritura publikoaren bidez, Bilboko 1. HELBIDE FISKALEAN helbide fiskala zuela. Erakundearen helburu soziala ehun-produktuak inportatzea eta esportatzea da.

b) Eratu zenetik 2000ko otsailaren 15era arte sozietatearen administratzaile bakarra 1. ADMINISTRATZAILEA zen, eta egun hartako eskritura publikoan 2. ADMINISTRATZAILEA izendatu zen, Sevillako 2. HELBIDE FISKALA helbidea zuena. 1. ERAKUNDEAK 2000-2004 arteko ekitaldietan aurkeztutako sozietateen gaineko zergaren aitortpen-likidazio guztietan 2. ADMINISTRATZAILEA aitortu dute erakundearen administratzaile gisa. Administratzaile bakarra, 2005eko ekainaren 23tik, 2. ERAKUNDEA da, helbide fiskala Sevillako 2. HELBIDE FISKALEAN duena.

c) Ekonomia-jardueren gaineko zergan sozietatea 651.2 epigrafean (Gorputzerako nahiz bururako mota guztietako jantzien txikizkako merkataritza) alta emanda dago, eta Bilboko 1. HELBIDE FISKALEAN egiten du jarduera.

d) 2. ERAKUNDEAK, 2000ko otsailaren 15ean, 1. ERAKUNDEAREN partaidetza sozial guztiak eskuratu zituen; hura, berriz, 3. ERAKUNDEA sozietatearen jabea ere bazen, Bilboko 1. HELBIDE FISKALEKO lokalaren errentaria zenarena, alegia.

e) 1. ERAKUNDEAK 2000, 2001, 2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietako BEZa itzultzeko aurkeztutako eskaeragatik hasitako prozeduraren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat agiri eta informazio eskatu zizkion erakundeari, eta horiek aztertuta, 2006ko martxoaren 8ko txostena egin zen, sozietatearen negozioak egiaz non zuzentzen eta kudeatzen zituzten argitzearren.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

f) Txosten hori oinarri hartuta, BFAk helbide fiskala aldatzeko prozedura, Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikuluan ezarritakoa, hasi zuen, eta, 2006ko martxoaren 28ko idatziaren bidez, 1. ERAKUNDEA erakundearen helbide fiskala Bilboko 1. HELBIDE FISKALETIK Sevillako 2. HELBIDE FISKALERA aldatzeko proposamena jakinarazi zion Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritzako Erakundearteko Eskualdeko Sailari, eta bi hilabeteren buruan «helbide fiskala Bizkaitik Sevillara aldatzeko proposamenari eta ondorioak atzera eramaten diren datari buruzko» iritzia emateko eskatu zion.

g) ZAEAK BFAko Ogasun eta Finantza Sailari 2008ko azaroaren 5eko jakinarazpena igorri zion, eta horren bidez honako hau adierazi zion: Sevillako ZAEAKo Ikuskaritzak 2007ko urtarrilaren 11n eta Euskadiko ZAEAK 2008ko azaroaren 4an egindako txostenak oinarri hartuta, helbidea aldatzea zuzentzat jotzen da baina proposatutako atzeraeragin-data [1998ko ekainaren 15a] ez da zuzena, zuzena 2006ko abuztuaren 4a baita [erakundeak xedeko administrazioan helbide-aldaketaren jakinarazpena -036 eredu- aurkeztu zuen orduan]. Hori horrela, aipatutako txostenak BFARI igorri zizkion horiek ikusita proposamena berresteko, osatzeko, edo bi administrazioak bil daitezen «Helbide-aldaketen lantaldearen ondorioen eta Kontzertu Ekonomikoaren 43. Bederatzi artikuluan aurreikusitako helbide-aldaketarako adiskidetze-prozeduraren» 5.3 puntuan aurreikusita dagoen moduan.

h) BFAko Ogasuneko zuzendari nagusiak, 2008ko azaroaren 28an, Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritzako Erakundearteko Eskualdeko Sailari jakinarazi zion foru-ogasunak «berresten zuela 2006ko martxoaren 28ko proposamenean ezarritakoa, hau da, sozietate horren helbide fiskala Sevillan, 2. HELBIDE FISKALEAN, dagoela Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak aipatutako eguna baino lehenagotik -eratu zen eguna proposatu zuen zehazki-, eta, administrazio horrek zuzendu ezean, bi administrazioen arteko bilera egitea proposatu zuen gatazka ebaztearren».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

i) BFAk, jasota ez dagoen egunean, Euskadiko ZAEAREN Erakunde Harremanetarako buruaren jakinarazpena jaso zuen posta elektronikoz bidez, eta adierazi zuen 2005eko ekainaren 23tik erakundearen administratzailea 2. ERAKUNDEA dela eta haxe erantsi zuen: «Aldundiaren ikerketa guztiak bideratuta daude 2. ERAKUNDEA eta haren administratzailea Sevillan helbideratuta daudela egiaztatzeraz, eta ondorioz, egiazko kudeaketa eta zuzendaritza hiri horretan egiten dituzte (...)»; horrez gain, honako hau gehitu zuen: «ez da ikerketarik egin, ordea, aurreko administratzailea non zegoen jakiteko, edo kudeaketa eta zuzendaritza Bilbon egiten zituen jakiteko (...), [hori horrela] onar dezakegu helbide-aldaketak 2005/06/22an atzeraeraginezko ondorerik izatea, baina ezin dugu atzeraeraginezko ondorerik eratzeko egunean onartu, ez baita inola ere frogatu helbide fiskala denbora hartan lurralde erkidean zegoenik».

j) BFAko Zerga Zentsuen Ataleko buruak, 2009ko martxoaren 13an, Ogasun eta Finantza Sailari txostena egiteko eskatu zion, eratu zenetik 2005eko ekainaren 22ra arteko aldiaren erakundearen helbide fiskala non zegoen zehaztearren.

k) BFAko Zerga Ikuskapeneko Zuzendariordetzak txostena egin zuen 2009ko maiatzaren 18an, eta ondorioztatu zuen 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala «Sevillan egon behar zela (2. HELBIDE FISKALA) gutxienez 2000tik aurrera».

l) BFAko Ogasuneko zuzendari nagusiak, 2009ko ekainaren 1ean, jakinarazpen bat bidali zion ZAEARI eta, 2009ko maiatzaren 18ko aipaturako txostena oinarri hartuta, «berretsi egin zuen (...) 2006ko martxoaren 28ko proposamena, hau da, sozietate horren helbide fiskala Sevillan, 2. HELBIDE FISKALEAN, dagoela gutxienez 2000tik aurrera eta, administrazio horrek zuzendu ezean, bi administrazioen arteko bilera egitea proposatu zuen gatazka ebaztearren».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

m) BFAko Ikuskapeneko zuzendariordeak, 2011ko azaroaren 25eko txostenean, ondorioztatu zuen 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala aldatzeko proposamenari dagokionez –2009ko ekainaren 1ean igorrita– Bizkaiko Foru Ogasunean ZAEAREN adierazpenik jasota ez dagoenez, «ZAEAREN adierazpenik ez egoteak adiskidetasunezko prozedura amaitzea dakarrela interpretatzen» dela.

n) Adiskidetasunezko prozedura amaitzea onartu arren [«helbide fiskala ofizioz aldatzeko proposamen horri dagokionez (...) ZAEAREN adierazpenik ez baitago jasota Bizkaiko Foru Aldundian»], 2011ko abenduaren 13an «modu berean egindako beste proposamen bat egin zuen, (2011/11/25ean) egindako txostena oinarri hartuta»; ZAEARI 2011ko abenduaren 29an jakinarazi zitzaion.

ñ) BFAREN Zerga Kudeaketako zuzendariordeak, 2012ko martxoaren 1eko txostenaren bidez, ohartarazi zuen helbide fiskala aldatzeko proposamenari dagokionez ZAEAREN adierazpenik jasota ez dagoenez eta Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikuluan aurreikusitako bi hilabeteko epea igaro denez, egokia dela espedientea Arbitraje Batzordeari igortzea prozedura Itunaren aipatutako 43. artikuluko Sei zenbakian aurreikusitako moduan jarraitzeko, eta, ondorioz, gatazka jartzea erabaki zen 2012ko martxoaren 20an.

3.- Gatazka planteatzeko idatziak ez ditu aipatu azaldu diren espedientearen xehetasunak, eta aplikatu beharrekotzat jotako araudia transkribatu ondoren [Ekonomia Itunaren 43. Lau artikulua (baina oker baten ondorioz Lehen Oinarrian aipatutakoa 43. artikuluko Bat zenbakia da) eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 47. artikulua (baina Bigarren Oinarrian oker baten ondorioz Ekonomia Itunaren 43. artikuluko Lau zenbakiaren a) letra aipatzen da], BFAK honako hau adierazten du: «erakundearen helbide fiskala zuzentzeko hasitako administrazio-espedientearen azaldutako alderdi guztietatik, transkribatutako araudiari dagokionez ondorioa finkatzeko batera baloratu beharreko horietatik

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

(...)» (Laugarren Oinarria), haren iritziz, «argia eta agerikoa da erakundearen helbide fiskala Sevillan, 2. HELBIDE FISKALEAN, finkatuta egon beharko litzatekeela, gutxienez 2000tik aurrera, aipatutako higiezinean zuzendaritzako lanak ez ezik, administrazio-kudeaketako lanak ere egiten baitzituzten» (Seigarren Oinarria).

4.- Arbitraje Batzordeak, 2016ko ekainaren 20ko bilkuran, gatazka izapidetzeko onartzea erabaki zuen, eta hura onartzea jakinarazi zion ZAEARI, alegazioak egiteko hilabeteko epea emanda. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez zuen alegaziorik aurkeztu.

5.- 2017ko otsailaren 8an espedientea amaitutzat jo zen, eta bi administrazio interesdunei eta 1. ERAKUNDEA erakundeari espedientea jakinarazi zitzaion. Izapide horretan BFAK baino ez zuen alegaziorik aurkeztu, 2017ko otsailaren 22ko idatziaren bidez, eta gatazka planteatzean adierazitako aurrekariak eta oinarriak berretsi zituen, baita haietan agertutako uzia ere.

6.- Prozedura hori Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen araudia onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuan xedatuta dagoenaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka honetan Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako funtsezko gaia da 1. ERAKUNDEA erakundeak Bizkaiko Lurralde Historikoan, Bilboko 1. HELBIDE FISKALEAN, aitortutako helbide fiskala zuzentzea edo ez zuzentzea bidezkoa den zehaztea. Izan ere, gatazka proposatu duen foru-aldundiaren iritziz lurralde erkidean dago 2000tik aurrera, Sevillako 2. HELBIDE FISKALEAN zehazki.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

Halere, ez onartzeko kausaren bat dagoen aztertu behar dugu aurrez, zeren ordena publikoko gaiak direnez, ofizioz baloratu behar dira, nahiz eta, hemen gertatzen den bezala, aldeetako inork ez dituen planteatu (ikus Ekonomia Itunaren 67. artikulua, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 17.3 artikulua eta 2013ko ekainaren 28ko Auzitegi Gorenaren epaia, 754/2011 errekurtsua eta Auzitegi Gorenaren 2013ko azaroaren 15eko epaia, 467/2013 errekurtsua, 3. ZO).

2.- Aipatutako helburuarekin, komeni da arreta jartzea espedienteak jakinarazten dituen honako datu hauetan, ebazpen honen aurrekarietan jasotzen diren hauetan, alegia:

a) Erakundeak helbide fiskaleko Foru Ogasunari 2000-2004 arteko ekitaldietako BEZa itzultzeko aurkeztutako eskaeragatik BFAk hasitako prozeduraren ondorioz sortu zen 1. ERAKUNDEA erakundearen helbideari buruzko gatazka. Prozedura horren barruan BFAk hainbat agiri eta informazio eskatu zituen (eta 2006ko martxoaren 8ko txostena eragin zuten), sozietatearen egiazko zuzendaritzaren eta kudeaketaren egoitza zein zen argitzearren.

b) BFAk helbide fiskala aldatzeko prozedura, Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikuluan ezarritakoa, hasi zuen aipatutako txostena oinarri hartuta, eta 2006ko martxoaren 28ko idatziaren bidez Euskadiko ZAEAREN Ordezkaritzako Erakundearteko Eskualdeko Sailari jakinarazi zion 1. ERAKUNDEA erakundearen helbide fiskala Bilboko 1. HELBIDE FISKALETIK Sevillako 2. HELBIDE FISKALERA aldatzeko proposamena, ondorioak 1998ko ekainaren 15ean eratu zenetik sortuta.

c) Bi urte eta erdi igaro arte ez zion Estatuko Administrazioak erantzuna BFari igorri, 2008ko azaroaren 5eko jakinarazpenaren bidez, eta haren bidez proposatutako helbide-aldaketa zuzentzat jo zuen, ez ordea atzeraeragin-data, data zuzena 2006ko abuztuaren 4a zela iritzita, hau da, erakundeak helbidea 2.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

HELBIDE FISKALERA aldatzea jakinarazteko 036 eredia xedeko Zerga Administrazioan aurkeztu zuen eguna.

d) Administrazio interesdunen aurrekarietan adierazitako jardueren ostean, oraindik hiru urte gehiago igaro ziren harik eta BFAk Foru Ogasuneko Ikuskapen Zuzendariordetzaren txostena 2011ko azaroaren 25ean egin zuen arte; horren bidez ondorioztatu zuen ZAEAk erakundearen helbide fiskala aldatzeko 2009ko ekainaren 1ean igorritako proposamen berriari buruz [lehen proposamena, esan bezala, 2006ko martxoaren 28an jakinarazi zen] iritzirik eman ez zuenez, bada, «interpretatzen da iritzirik ez emateak adiskidetasunezko prozedura amaitzea dakarrela» [Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikuluan aurreikusita].

e) ZAEAREN adierazpen edo erantzunik jasota ez dagoenez aipatu berri dugun manuan aurreikusitako bi hilabeteko epean, Bizkaiko Foru Ogasuneko Zuzendari Nagusiak, azkenean, Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka aurkeztea erabaki zuen 2012ko martxoaren 20an, eta haren erregistroan martxoaren 22an sartu zen.

3.- Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikuluan xedatutakoaren arabera, «Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango du. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, jakin beharreko aurrekariak erantsita, eta bi hilabeteko epea emango dio (lauko epea, 2014ko apirilaren 21eko 7/2014 Legeak txertatutako aldaketarekin) egoitza-aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko». Era berean, «ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikulua honetako sei zenbakian azaldutako eran», hau da, Arbitraje Batzordeari Administrazioen arteko kasuan kasuko zergadunaren helbideratzeari buruzko desadostasuna helaraziz.

Gure erregelamenduaren 13. artikulua («zerga-administrazioen artean sor litezkeen gatazkak hasteko jarraitu beharreko prozedura») hau ezartzen du:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

«1. Gatazka onartzeko eskakizun moduan, beharrezkoa izango da, gatazka aurkeztu baino lehenago, bere burua eskuduntzat jotzen duen zerga-administrazioak eskumenik gabea irizten dionaren inhibizioa eskatu izana, horrela bere eskumena erreklamatu, eta azken administrazio horrek errekerimendua errefusatu izana, eta bere eskumenean berrestea esanbidez nahiz isilbidez.

Aipatutako errekerimendu hori, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da, bere burua eskuduntzat jotzen duen administrazioak bere iritziz Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak urratzen duen egintza edo egintzak ezagutzen dituen datatik kontatzen hasita.

Errekerimendu-idatzian, argi eta garbi zehaztuko dira gatazkaren gai diren egintzak, bai eta zuzenbideko oinarriak ere.

Baldin eta ezein administrazioak ez badu bere burua eskuduntzat jotzen, eskugabetasun-deklarazioa gertatu izana beharko da, administrazio batetik bestearen aldekoa, eta, aldi berean, haren erabakia, inhibitzeari buruzkoa.

Inhibizioko errekerimendua jasotzen denetik hilabeteko epean errekerimendu horri erantzuten ez dionean, ulertuko da zerga-administrazioak bere eskumena isilbidez berresten duela. Era berean, beste Administrazioaren eskumenik ezari buruzko deklarazioari erantzuten ez dionean, ulertuko da zerga-administrazioak ez duela bere burua eskuduntzat jotzen.

Zergadunen zerga-helbideratzeen ondorioz sortzen diren desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzi zenbakian aipatzen den bi hilabeteko epea bi administrazioen aldetik adostasunik izan gabe igarotzen delarik, orduan ez da beharrezko izango zenbaki honen lehenengo lerrokadan aipatzen den errekerimendua edo eskugabetasun-deklarazioa egitea, gatazka aurkeztu ahal izateko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

2.- Gatazkak, hain zuzen ere, hilabeteko epean sustatuko dira, aurreko zenbakian aipatzen den esanbidezko edo isilbidezko berrespenetik kontatzen hasita, Arbitraje Batzordeko buruari zuzendutako idatzi baten bidez (...)».

4.- Aurreko arau-esparru horretatik ondorioztatzen da zerga-administrazioen arteko gatazkak abian jartzeko denbora-baldintza bikoitza bete beharra dagoela; horri dagokionez Auzitegi Gorenak eskumen-gatazka positiboak eta helbideari buruzko gatazkak bereizi ditu.

Eskumen-gatazka positiboetan «Administrazio batek uste du beste bat tributua aplikatzeko ez dagokion eskumena erabiltzen ari dela, eta bere eskumena, bere iritziz, kaltetzen duen egintzaren edo xedapenaren aurka erantzuten du; logikoa da ulertzea aurretiazko errekerimendua egiteko zein, berariaz edo tazituki baztertuz gero, gatazka aurkezteko epeak izaera iraungitzailea duela; horrenbestez, hori ez betetzeak prozesu-ekintza indargabetzen du, Justizia Auzitegien aurrean errekurtsioak jartzeko ezarritakoei parekatu behar baitzaie epe hori».

Helbideari buruzko gatazketan, berriz: «abiapuntua ez da Administrazio batek aurretik egindako jarduera bat, beste bat eskumena erreklamatzeko erantzutera behartzen duena, baizik eta zergadunen helbideari buruzko desadostasun huts bat dagoela, adiskidetasunez ebazten saiatzen dena, eta ados ez daudenean baino ez da Arbitraje Batzordearen esku uzten desadostasuna ebaztea»; nabarmentzen da, halaber, «garrantzirik gabekoa dela helbidea aldatzeko proposamenari buruzko erantzuna bi hilabeteko epeetik kanpo ematea (...), ezerk ere ez du eragozten, hortaz, helbidea aldatzeko proposamena baztertzen duen garaiz kanpoko ebazpen baten aurrean Arbitraje Batzordera hamabost eguneko epean [Estatuaren eta Nafarroaren arteko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 14.2 artikulua arabera, eta hilabetekoa, gure araudiko 13.2 artikulua arabera]» jo ahal izatea ezesteko erabakiaren berri jasotzen denetik hasita. Era berean, «ezerk

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona juridikoen egoitza fiskala</i>

ez du galarazten, ezarritako epean erantzunik izan ezean, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzat jotzen duenean, aldaketa-proposamena tazituki ezetsizat jotzea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuta, eragiten dion zergadunaren segurtasun-gabezia juridikoa eskatu ahal izan gabe; izan ere, ebazpenean izandako atzerapenaren ondorioak, halakorik badago, Administrazio eskudunak praktikaturako likidazioaren arabera eskatu behar dira» (Auzitegi Gorenaren 2012ko ekainaren 7ko epaia, 9/2011 erre., 6. ZO eta Auzitegi Gorenaren 2011ko irailaren 22ko epaia, 2429/2007 erre.).

Doktrina horretan oinarrituta, 2014ko maiatzaren 5eko Auzitegi Gorenaren Epaia, erre. 256/2012, hau adierazten du: «beste Administrazio batek adierazitako egoitza-aldaketarekin ados dagoela edo ez dagoela ados adierazteko errekeritutako Administrazioari legez ezarritako bi hilabeteko epea pasatu bazaio, ez da erabateko deuseztasunaren kausa, baizik eta baliorik gabeko ondorioak izateko defentsa-gabezia sortu behar da» (3. ZO).

5.- Kontua da, beraz, Ekonomia Itunean eta Arbitraje Batzordearen Araudian araututako adiskidetasunezko prozeduraren logikak ezartzen duela egoitza fiskalaren aldaketa sustatzen duen Administrazioak ezin duela bere zuzentze-proposamena onartutzat edo ezetsizat jo errekeritutako Administrazioak (proposamenaren hartzailea) proposamenari buruz era tazituan *behin betiko* adierazpena egin arte; nahiz eta Auzitegi Gorenak hau adierazi: «ezerk ez du galarazten, ezarritako epean erantzunik izan ezean, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzat jotzen duenean, aldaketa-proposamena tazituki ezetsizat jotzea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuta» (2012ko ekainaren 7ko epaia, 9/2011 erre., 6. ZO). Errekeritutako Administrazioak orduko bi hilabeteko epean erantzunik eman ez zuenez helbide fiskala aldatzeko proposamenarekin ados zegoela eta haren ondorioak zer egunetatik aurrera sortzen ziren esateko (Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikulua), helbidea zuzentzeko interesa zuen Administrazioak,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

kasuaren gorabeherak eta proposamenaren hartzaile zen Administrazioak agertutako jarrera ikusita, honako hau egin ahal izango du:

- azken horrek zehaztutako legezko epean *erantzun ez izana desadostasun* gisa ulertu ahal izango du, gatazka Arbitraje Batzordera eramanez;
- edo, zehaztutako epea igaro arren, errekerimendua jaso duen Administrazioak zerga-egoitza aldatzeko proposamenaren inguruan duen *behin betiko* iritzia aztertu ahal izango du, koordinazio- eta lankidetzaprintzipio orokorrak gaitzen eta eskatzen dituzten Administrazioen arteko barne-komunikaziorako bitartekoak edo egoitza-aldaketarako prozeduretan zehatz-mehatz zehazten diren bitartekoak erabiliz horretarako. Hala badagokio, proposamena tazituki ezetsizat jo ahal izango da, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuz eta betiere gatazka Arbitraje Batzordean sustatzeko helburuarekin (ikus ekainaren 20ko 14/2016 Ebazpena, 95/2011 espedientea, Bosgarren Oinarria).

6.- Egiaztatuta dago kasu honetan BFAk helbidea aldatzeko prozedura (Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikuluan jasota) hasi zuela ZAEAr aldatzeko proposamena 2006ko martxoaren 28an jakinaraziz, hau da, Arbitraje Batzordearen eraketa baino bi urte lehenago. Agerikoa da ZAEAk 2008ko azaroaren 5ean helbidea aldatzearekin bai baina haren ondorioak sortzeko BFAk proposatutako egunarekin ez zegoela ados adierazi zionean errekeritutako Administrazioak ados dagoela edo ez dagoela adierazteko legez aurreikusitako bi hilabeteko epea igaro zela, baita proposamena jaso zenetik ia bi urte eta erdi ere.

Egia da, batetik, bi hilabeteko epearen laburtasunak zaildu edo eragotzi ahal izan zuela helbidea aldatzeko proposamenaren hartzailea zen Administrazioak erabakia har zezan (ikus 14/2012 Ebazpena, urriaren 29koa,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

24/2012 espedientea, 2. oinarria) eta, bestetik, aipatutako epea igarotzea «ez da erabateko deuseztasunaren kausa, baizik eta baliorik gabeko ondorioak izateko defentsa-gabezia sortu behar da» (Auzitegi Gorenaren 2011ko irailaren 22ko epaia, 2429/2007 erre.; 2012ko ekainaren 7ko epaia, 9/2011 erre., eta 2014ko maiatzaren 5eko epaia, 256/2012 erre., 3. ZO). Eta esan bezala, Auzitegi Gorenak honako hau adierazi du: «ezerk ez du galarazten, ezarritako epean erantzunik izan ezean, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzat jotzen duenean, aldaketa-proposamena tazituki ezetsizat jotzea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuta (...)». (Auzitegi Gorenaren Epaia, 2011ko ekainaren 7koa, 6. ZO). Baina, argi dago, kontuan izanda ondorio horietarako egoitza fiskalaren aldaketa sustatu duen Administrazioari onartzen zaion diskrezionalitatea, bateratu egin beharko dela hala fede onaren eskakizunekin nola segurtasun juridikoaren eskakizunekin eta zergadunen eskubide zein bermeen errespetuarekin, bereziki ziurtasunerako bere eskubidearekin Administrazio fiskalarekin dituen harremanetan.

Auzitegi Gorenak ere adierazten duenez, «esku hartzen duten Administrazioen arteko helbidea aldatzeko prozedura bat dugu aurrean, baina erabakitzen denak erabateko garrantzia izango du zergadunaren helbide fiskala zehazteko, eta haren zerga-egoera ere zehaztuko du jasan beharreko zerga zehatzekin lotuta (...)» (Auzitegi Gorenaren Epaia, 2014ko maiatzaren 5koa, 256/2012 erre., 4. ZO). Izan ere, «gatazka zerga-erregimen ezberdineko organoen artean ematen bada ere, beti aurkitu daitezke euren zerga-egoera gatazkaren ebazpenaren mende edo baldintzapean duten interesdun partikularrak, eta, zergadun bezala, halakotzat dagozkien eskubideak eta bermeak errespetatzeko eskubidea dute horiek» (Auzitegi Gorenaren Epaia, 2013ko apirilaren 11koa, 17/2012 erre., 3. ZO).

Azken gogoeta hori bereziki garrantzitsua da gatazka honetan, itxuraz, 1. ERAKUNDEA erakundeak bere helbide fiskaleko Foru Ogasunari eskatutako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

2000-2004 arteko ekitaldietako BEZaren itzulketa jokoan baitago. Azken egoera hori dela eta, helbide-aldaketa proposatu zuen Foru Aldundiak azkar eta eraginkortasunez jardun behar zuen ZAEAREN aldetik, prozeduraren fase adiskidetsuan, erakundearen helbide-aldaketaren proposamenari buruzko behin betiko iritzia lortzeko eta, hala badagokio, desadostasunak Arbitraje Batzordearen aurrean planteatzeko helburuarekin, betiere 2008ko apirilaren 4an eratu ostean.

7.- Berriz nabarmendu beharra dago zergadunen helbideratzeari buruzko administrazio-desadostasunetan, ez dela nahastutako Administrazioen eskumen-egoera soilik eragiten, baizik eta zergadunek Administrazio fiskalarekiko harremanetan duten ziurtasun-eskubidea (ikus Auzitegi Gorenaren Epai, 2014ko maiatzaren 5ekoa, 256/2012 errek., 4. ZO); zeren gatazka hauetan egoitza fiskala aldatzea bidezkoa den ala ez ebazten baita eta, horrekin batera, aldaketak eragiten dien Administrazioak zergak ordainarazteko eskumenez baliatzen hasteko (zerga-administrazio hartzailea) edo baliatze hori uzteko (jatorrizko Administrazioa) unea zehaztuko baita. Aipatutako zerga horien helbide fiskala hartzen du Ekonomia Itunak eskumenak esleitzeko edo banatzeko elementu gisa. Eta, ondorioz, zergadunak bere helbide fiskal berriari dagokion Administrazioan bere betebeharrak eta eginkizunak noiztik bete beharko dituen ere zehaztuko da. Ez da beharrezkoa zergapekoaren zerga-egoitza zehaztea zer garrantzitsua den azpimarratzea, bere zerga-egoerari eta «zerga-administrazioarekin dituen harremanei» dagokienez (abenduarien 17ko 58/2003 Zergei buruzko Lege Orokorraren 48.1 artikulua eta martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Zergen Foru Arau Orokorraren 47.1 artikulua).

Absurdua eta logikarik gabekoa izateaz gain, helbide fiskala auzitan duen zergadunaren segurtasun juridikoaren eta eskubideen errespetuaren eskakizunen aurkakoa ere izango zen [haien artean egoera juridikoa legez aurreikusitako bideetatik argiturik edukitzearena (ikus Auzitegi Gorenaren Epai hauek: 2013ko ekainaren 28koa, 754/2011 errek.; 2013ko azaroaren 15ekoa,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

467/2013 errek., eta 2014ko maiatzaren 5ekoa, 256/2012 errek., 5. ZO]], Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikuluan «Administrazioen artean (...) zergadunen helbideratzeari buruz dauden desadostasunak» ebazteko aurreikusitako adiskidetasunezko prozedura (43. Sei artikulua) mugarik gabe ebatzi gabe eta zabalik eduki ahal izatea, *sine die*, aldaketa sustatzen duen zerga-administrazioaren mende [kasu honetan BFA], harik eta, hasiera eman zizaionetik ia sei urte igarota, hemen gertatu bezala, amaitutzat jotzea erabakitzen duen arte.

8.- Adiskidetasunezko prozedura izapidetzeko legezko epeak izanda [Itunaren 43. artikuluko Bederatzi eta Sei zenbakiak eta EIABaren 13. artikulua] ez dirudi arrazoizkoa denik horiek alde batera uztea prozedura luzatuz 2006ko martxoaren 28tik 2012ko otsailaren 20ra arte. Kontuan hartu behar da Arbitraje Batzordea 2008ko apirilaren 4tik eratuta egonik Bizkaiko Foru Aldundiak Itunaren 43. Sei artikuluan agindutakoaren arabera jardun behar zuela, Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka hilabeteko epe iraungitzailearen barruan sustatuz, alegia (EIABaren 13.2 artikulua), eta ZAEAk erakundearen helbidea aldatzearekin bai baina ondorioak sortzeko proposatutako egunarekin ez zegoela ados berariaz adierazi zion egunetik aurrera zenbatzen hasita, hain zuzen ere.

Hori egin ordez, 2011ko azaroaren 25era arte itxarotea erabaki zuen 2006ko martxoaren 28an hasitako prozedura amaitutzat emateko, eta, gainera, beste prozedura bat hasi zuen 2011ko abenduaren 13an ZAEARI 2009ko ekainaren 1ean igorritako bigarren proposamenaren baldintza berberekin. Azkenean, gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean 2012ko otsailaren 22an aurkeztu zuen 1. ERAKUNDEA erakundearen helbide fiskala 2000tik aurrera aldatzeko (ikus Auzitegi Gorenaren Epaia, 2014ko maiatzaren 5ekoa, 256/2012 errek., 4. ZO).

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
13/2012	R9/2017	2017-06-21	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen egoitza fiskala

ERABAKITZEN DU

1.- Ez onartzea, garaiz kanpoko izateagatik, Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari aurkeztutako 13/2012 gatazka, ez baitira bete Ekonomia Itunean eta Arbitraje Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudian epeei buruz jarritako prozedura-eskakizunak.

2.- Ebazpen hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta 1. ERAKUNDEARI jakinaraztea.